



2. DINAMIKA. NORBERE BURUA EZAGUTZEA: ZER LORTU DUT ETA NOLA EGIN DUT?

HELBURUA	Eginkizunak, lorpenak eta trebetasunak identifikatzea.
IRAUPENA	40-45' (5' materiala banatzea eta ariketa azaltzea, 15' banakako lana eta 20-25' bateratze lana eta eztabaida)
MATERIALAK	Idazteko materiala "ZER LORTU DUT ETA NOLA EGIN DUT?" taula
GARAPENA	Ariketa dinamizatzeaz arduratzen denak ikasleei azaldu behar die oso garrantzitsua dela norberak bere burua ezagutzea eta norberak bere burua modu positiboan baloratzea. Norberak ulertu behar du zer ezaugarri pertsonali esker lortzen den arrakasta abiatzen diren jardueretan, jarduera akademikoak izan zein ez, erabakiak modu optimoan hartu ahal izateko. "ZER LORTU DUT ETA NOLA EGIN DUT?" taula banatu (fitxa honen eranskina) eta adibideen bidez nola bete behar den azaldu behar da. Ikasleei taula banaka betetzeko beharrezko denbora eman ondoren, egindako lana taldeko gainerako kideekin bateratu behar da, errealitatearekin bat datorren ikusteko.
OHARRAK	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Parte-hartzea. ✓ Norberaren irudia eta gainerako pertsonen duten irudia egokitzea. ✓ Talde barruko harremanak.



ZER LORTU DUT ETA NOLA EGIN DUT?

ZER LORTU DUT?	NIRE BIZITZAKO ZEIN ESPARRUTAN?	NOLA LORTU DUT? ZER GAITASUNEK PARTE HARTU DUTE?